

ESTABLEZIMENDU TURISTIKO HARTZAILEEN INKESTA (ETH), 2014KO APIRILA

Euskal AEko hotel-establezimenduetako bidaiari-sarrerak %7,6 gehitu ziren apirilean

Gaualdiak %12,3 gehitu dira aurreko urteko hil beraren aldean

2014ko apirilean, 188.304 bidaiari-sarrera erregistratu ziren Euskal AEko hotel-establezimenduetan, aurreko urteko hil berean baino 13.326 gehiago, %7,6ko gehikuntza, Eustaten datuen arabera. Bidaiari-sarrerak %14,5 gehitu ziren Gipuzkoan, %8,0 Araban, %2,1 Bizkaian. **Komeni da gogoraraztea 2013ko Aste Santua martxoan izan zela eta aurtengoa apirilean.**

Gaualdiak, 2014ko apirilean, 357.328 izan ziren, aurreko urtekoan baino 39.016, %12,3, gehiago. Gaualdiak urte artean %6,1 gehitu dira Araban, %18,0 Gipuzkoan, %9,5 Bizkaian.

1. taula.- Euskal AEko hotel-establezimenduetako gaualdiak, bidaiarien sarrerak, batez besteko egonaldia eta betetze-maila. Apirila 2014

	Gaualdiak		Bidaiarien sarrerak		Batez besteko egonaldia		Betetze-maila (%)			
	2014/04	m/m-12 (%)	2014/04	m/m-12 (%)	2014/04	2013/04	plazaka		gelaka	
							2014/04	p.p.*	2014/04	p.p.*
EUSKAL AE	357.328	12,3	188.304	7,6	1,90	1,82	42,6	4,3	51,3	2,0
Estatukoak	236.141	19,0	122.609	10,5	1,93	1,79	-	-	-	-
Atzeritarrak	121.187	1,0	65.695	2,6	1,84	1,87	-	-	-	-
ARABA/ÁLAVA	48.276	6,1	26.447	8,0	1,83	1,86	35,8	1,7	42,5	-0,8
Estatukoak	37.816	14,1	20.640	15,1	1,83	1,85	-	-	-	-
Atzeritarrak	10.460	-15,4	5.807	-11,5	1,80	1,88	-	-	-	-
Vitoria-Gasteiz	34.775	1,1	19.328	10,5	1,80	1,97	37,0	-0,5	45,6	-3,0
BIZKAIA	164.993	9,5	85.939	2,1	1,92	1,79	42,6	3,6	52,9	0,9
Estatukoak	108.050	19,3	56.275	5,9	1,92	1,71	-	-	-	-
Atzeritarrak	56.943	-5,3	29.664	-4,4	1,92	1,94	-	-	-	-
Bilbao	110.842	13,4	56.801	4,3	1,95	1,80	48,6	3,0	60,4	-0,1
GIPUZKOA	144.059	18,0	75.918	14,5	1,90	1,84	45,6	6,4	52,9	4,6
Estatukoak	90.275	20,9	45.694	14,5	1,98	1,87	-	-	-	-
Atzeritarrak	53.784	13,3	30.224	14,4	1,78	1,80	-	-	-	-
Donostia / San Sebastián	83.109	22,9	44.188	19,7	1,88	1,83	54,8	9,9	62,7	7,0

p.p.*= aurreko urteko hilabete berarekiko portzentajeazko puntuko aldea


Iturria: Eustat. Establezimendu Turistiko Hartzaileen Inkesta (ETH)

Estatuko bidaiariak %10,5 gehitu dira aurreko urteko apirilaren aldean eta atzerrikoak %2,6. Araban atzeritarrak %11,5 gutxitu dira eta estatukoak %15,1 gehitu. Bizkaian atzeritarrak %4,4 gutxitu dira eta estatukoak %5,9 gehitu. Gipuzkoan atzeritarrak %14,4 gehitu dira eta estatukoak %14,5.

Batez besteko egonaldia, 1,90 egun, aurreko urteko apirilean 1,82 izan zelarik. Araban 2013ko apirileko 1,86 egunetik aurtengo 1,83ra laburtu da; Bizkaian 1,79tik 1,92ra luzatu; Gipuzkoan 1,84tik 1,90ra luzatu.

Plazakako betetze-maila ehuneko 4,3 puntuz handitu da Euskal AE osoan, 2013ko apirileko %38,3tik aurtengo %42,6ra. Araban ehuneko 1,7 puntuz gehitu da, 2013ko apirileko %34,2tik aurtengo %35,8ra. Bizkaian ehuneko 3,6 puntuz gehitu da, 2013ko apirileko %39,0tik aurtengo %42,6ra. Gipuzkoan ehuneko 6,4 puntuz gehitu da, 2013ko apirileko %39,2tik aurtengo %45,6ra. Gelakako betetze-maila ehuneko 2,0 puntuz gehitu da Euskal AE osoan; okupazioa %51,3. Araban ehuneko 0,8 puntuz gutxitu da, %42,5era; Bizkaian 0,9z gehitu, %52,9ra; Gipuzkoan 4,6z gehitu, %52,9ra.

Euskal AEko hotel establezimenduen okupazio-mailaren eboluzioa lurralde historikoaren arabera (%)



Hotel-okupaziorik handienak apirilean Donostian (%54,8), Bilbon (%48,6), eta Gipuzkoako kostaldean (%45,7).

Asteko eguna aintzat hartuta, 2014ko apirilean okupaziorik handiena (%54,8) aste-bukaeretan; %38,1 lanegunetan.

2013ko apirilaren aldean langile okupatuak %2,5ez gutxitu dira aurtengoan.

Landa-ostatuetak sarrerak %68,1 gehitu dira apirilean eta gualdiak bikoiztu

Euskal AEko landa-establezimenduetan apirilean 28.169 gualdi erregistratu ziren, bi aldiz pasa gehiago aurreko urteko hil beraren aldean. Araban %143,7ko gehikuntza, Bizkaian %135,1, Gipuzkoan %86,7.

Plazakako betetze-maila, %24,1, ehuneko 12,8 puntu gehiago 2013ko apirilean baino. Araban ehuneko 13,4 puntu gehiago, betetze-maila %21,7. Bizkaian betetze-maila %20,2, ehuneko 11,7 puntu gehiago 2013ko apirilaren aldean eta Gipuzkoan 13,2 puntu gehiago, %27,7.

Euskal AEko landa-ostatueta 10.808 bidaiari-sarrera erregistratu ziren aurtengo apirilean, %68,1 gehiago aurreko urteko hil beraren aldean. Araban %79,0ko gehikuntza sarreretan, Bizkaian %96,4, Gipuzkoan %53,5.

949 atzerriar-sarrera izan genituen, %+50,4 aurreko urtekoen aldean eta sarrera guztien %8,8. Estatuko bidaiarien sarrerak %70,0 gehitu ziren.

Batez besteko egonaldia, 2,61 egun aurtengo apirilean, lehengo urtean baino luzeagoa.

2. taula.- Euskal AEko landa-establezimenduetako gualdiak, bidaiarien sarrerak, batez besteko egonaldia eta betetze-maila. Apirila 2014

	Gualdiak		Bidaiarien sarrerak		Batez besteko egonaldia		Plazakako betetze-maila (%)	
	2014/04	m/m-12 (%)	2014/04	m/m-12 (%)	2014/04	2013/04	2014/04	p.p.*
EUSKAL AE	28.169	107,0	10.808	68,1	2,61	2,12	24,1	12,8
ARABA/ÁLAVA	5.496	143,7	2.164	79,0	2,54	1,87	21,7	13,4
BIZKAIA	7.164	135,1	2.879	96,4	2,49	2,08	20,2	11,7
GIPUZKOA	15.509	86,7	5.765	53,5	2,69	2,21	27,7	13,2

p.p.*= aurreko urteko hilabete berarekiko portzentajezko puntuko aldea

Iturria: Eustat. Establezimendu Turistiko Hartzaileen Inkesta (ETH)

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

C/ Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa zerbitzua servicioprensa@eustat.es Tlf: 945 01 75 62

ETH-Euskal AEko establezimendu turistiko hartzaileen inkestari buruzko prentsa-ohar gehiago

ETH-Euskal AEko Establezimendu Turistiko Hartzaileen Inkestari buruzko datu-bankua